

JARRAIPEN BATZORDEEN BILERAK - 2021

A. BATZORDE TEKNIKOAREN BILERAK

1. Bilera: 2021/5/12.

NABIk 2020ko urteko txostenaren eta 2021erako aurkeztutako programaren berri eman du. Departamentu bakoitzak adierazi du zein den 2021erako plan sektorialetan sartutako ekintzen exekuzioaren egoera.

NABIk 2021erako proiektu berriari buruzko informazioa eman du: **“Sexu-erasoetarako krisi-zentroa”**. Proiektu horren aurrekontua 1.500.000 eurokoa da. Berdintasun Ministerioak proposaturikoa da. Aurten finantzaketaren % 33 jasoko da, eta 2023ko abuzturako amaituta egon beharko du.

2. Bilera: 2021/11/24.

Landutako gaiak:

Departamentu bakoitzak adierazi du zein den 2021erako plan sektorialetan sartutako ekintzen exekuzioaren egoera.

Honako hau adierazten da:

- Hezkidetza Plana egitea.
- Justizia Departamentuak jakinarazi du gehitu egin direla larrialdiko esku-hartzeak eta adingabeen aurkako abusuen delituekin lotutako salaketak.
- Osasun Ministerioaren lantaldean parte hartzea, sexu-indarkeria detektatzeko eta egoera horretan jarduteko protokolo komuna egiteko.
- Onestea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateari buruzko Foruzaingoaren zerbitzuen gutuna, foru-agindu bidez.
- Baliabideen eta indarkeriaren mapa eguneratzea: Baliabideak geolokalizatzeko proiektu bat diseinatzea eta lantzea.
- Ziberrindarkeriaren kanpaina eta ziberjazarpenari buruzko I. sentsibilizazio-jardunaldia
- Hitzarmena Acción contra la Trata elkarrearekin.
- 24 orduko krisi-zentroa: diseinua eginda.

- Departamentuetan 8 berdintasun-teknikari sartzea; horietako bat artekari edo koordinatzailea izanen da, eta beste zazpiek departamentuetan egingen dute lan.

B. BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEAREN 2021EKO BILERA

1. Bilera: 2021/06/29

Espainiako Gobernuak “Espainiak babesten zaitu” izenarekin aurkeztu duen planean sartzen diren bi proiektuen berri eman da; plana Europako funtsekin finantzatzekoa da.

Lehenengoa **sexu-indarkeriak prebenitzeko eta artatzeko krisi-zentroa** da, sexu-indarkerien prebentziorako eta diziplinarteko arreta osorako baliabide edo zentro espezializatua da – irekita 24hr/7egun/365egunez –. Bigarren proiektu europarra **prostituzio-testuinguruetan emakumeen indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko autonomia-erkidegoen sarea** da. Balear Uharteak dira buru, eta xedea du haur eta nerabeen sexu-salerosketa eta esplotazioa desagerraraztea. 8 autonomia-erkidegok eta hiri autonomo batek osatzen dute: Aragoi, Asturias, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Extremadura, Galizia, Balear Uharteak, Nafarroa, Valentziako Erkidegoa eta Melilla Hiri Autonomoa.

Berdintasunaren arloan 2021ean garatzen ari diren bi mugarri garrantzitsu ezagutarazi dira: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan estrategikoa egiten parte hartzeko prozesua, eta Nafarroako Gobernuko departamentuetan berdintasun-unitateak sendotzea.